

# 1. BALIO PROPOSAMENA

- **Zer behar edo arazo konpontzen duzue?**

Gaur egungo elikagaien egoera txarraren ondorioz, hauen hobekuntza sustatzen duen eta produktu ekologikoak helarazten dituen enpresa bat gara. Eskaintzen ditugun zerbitzuak, gaur egungo elikadura txarra hobetzeko pentsatuta dago. Elikadura txar hori produktu transgeniko eta lehengaien ekoizpen ez egokiaren ondorioz gauzatzen da.

## **INTERNETEN BILATU ADIBIDEAK ETA INFORMAZIOA**

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Bezeroak gure enpresaren alde egiten dute hainbat arrazoiengatik baina nagusia, produktu ekologikoak saltzea da, horrez gain beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu, hala nola, nutrizionista eta produktu ekologikoekin sukaldatzeko klaseak.

Gaur egun produktu ekologikoak garrantzi handia izaten ari dira gizartean, hori dela eta hauen salmenta azken urteetan areagotu egin da. Gainera, gure enpresak beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, orain zerbitzu hauen ezaugarriak adieraziko ditugu.

Hasteko, esan beharra dago produktu ekologikoak izango direla enpresa honen bultzatzaileak eta oinarria, baina baita beste zerbitzu batzuk eskainiko dira, hala nola, produktu hauek modu osasuntsu batean sukaldatzeko klaseak emango dira. Hauetan, errezeta liburu bat eskainiko da non pertsona desberdinentzako eta arazo desberdinak dituztenentzako egokituak, hala nola, zeliakoentzat. Bakoitzak bere kabuz arituko da nahi duen errezeta egiten, eta irakasle bat egongo da laguntza eskaintzen.

Bestetik, elikaduraren inguruan txarlak emango dira, gaur egungo egoeraren inguruan eta produktu ekologikoak ematen digun onura eta alde txarrei buruz. Horrela jendea informatzeko aukera izango du nahiz eta produktu hauek ez kontsumitu.

Azkenik, gure enpresan bertan, gure lokalean, mediku nutrizionista bat egongo da bezero bakoitzari zerbitzu berezia eta espezifikoa emanez. Horrela bezeroak jakin ahalko du zer dieta eta produktu hartu behar dituen bere osasunerako.

Orokorrean balore kualitatiboak dituzte gure zerbitzuek baina kuantitatiboa baita ageri da.